

(2014ko otsaila)

KONTROL BAKO DINAMIKA.

Urtero lez, Munduko Ekonomia Foroa Davosen batzartu da 2014.eko urtarrilaren 22tik 25era. Suitzako mendialdean izan eben topagunea munduko finantza-, enpresa-buruzagi eta politiko nagusiek eta eurakaz batera, kazetari eta intelektual bana-banakoek, planetak jasaten dituan arazorik larrienak aztertzeko. XXI. gizaldiko gaixotasuntzat jotzen dan desbardintasun ekonomikoa gaur egun gizadiak gizarte zuzen, bidezko eta demokratikoetarantz aurrera egitea galarazo daiken erronkarik nagusienetakoa da.

Aberastasunaren izugarritzko metaketak erakundeak barrutik jaten ditu eta, ondorioz, Gobernuek, herritarren ongizatearen alde ez ezik, gutxiengo dirudunaren interesen alde egiten dabe. Historian zehar, aginte ekonomikoa izan daben taldeak aginte hori erabili izan dabe erakunde formaletan eta ez formaletan eragiteko (eta batzuetan erakundeok harrapatzeko) eta, holan, eliteengandik aldeko tratua lortzeko lege eta araudien zehazpenean. Gaur egun, herrialde askotan –eta herrialde askoren artean-, gero eta nabarmenagoa dan desbardintasun ekonomikoa espiral erako joera hori areagotu egiten dau. Gizarte oso desbardinetan, herritar askok eta askok ez dau bere bizitza kontrolatzen eta ezin ditu bere eskubideak garatu. Gizarte horreetan erraz bizitu daitezke tirabira sozialak. Nahitaezkoa da esku-hartzea desbardintasun eta aberastasun-metaketari buelta emon eta, pobretasuna deuseztatze aldera, gizarte seguru eta arrakastatsuagoak ahalbideratzeko.

Espainia, zoritxarrez, ez da dinamika honetatik kanpo geratzen. Gure demokraziaren historian makina bat bider nagusitu izan dira ahalmen ekonomiko handia daukan gutxiengoaren interesak herritar arrunten interesen gainetik. Espainiak gaur egun jasaten diharduan ekonomia-, finantza-, politika- eta gizarte- krisiaren jatorria, neurri handi batean, dinamika kaltegarri horietan dago: gutxiengo baten interesek interes publikoa eta prozesu demokratikoak bahitu egin dabez, herritar gehienak kanpoan geratu izan diralarik, agintarien jardutea jagoteari eta beren eskubideen defentsari uko eginez.

Irakurketa eta alkarrizketarako gida


1. Zeintzuk dira egoera ekonomikoaren, enpresen egoeraren inguruan entzun izan dozuzan azken barriak? Ba ete dago bereziki deigarri gertatu jatzun zerbait? Zergaitik? Ze aldaketa izan da azken urteetan ekoizpen-moduetan, enpresen kudeaketan, banku erakundeetan...?



2. Ze alderdi nabarmentzen dau EDSak enpresen jardunbideari buruz, ekonomia ulertzerakoan? Baleiteke bestelako eredurik garatzea? Ezagutzen dozu esperientziaren bat? Zein?



3. Zure ustez, aginte ekonomikoa kontrolatzen daben gutxiengoek jardute demokratikoa baldintzatu –edo hutsitu- egiten ete dabe?





ELEIZAREN DOKTRINA SOZIALAREN IDAZKIAK

Mater et Magistra (MM)

Entziklika auzi sozialaren oraintsuko garapena kristinau doktrinaren argitan gaiari buruz. Juan XXIII.a

1961

83. Ekoizpen-sistemaren jarduteak eta egitura ekonomikoek beharginaren giza duintasuna arriskuan jarten badabe, edo bere erantzukizun-sena ahultzen badabe, edo bere berariazko ekimenaren adierazpen askea galarazoten badeutse, antolaketa ekonomiko hori bidebakoa dala esan beharra dago, baita, hipotesiz, eragindako aberastasuna goi mailakoa bada eta erespide zuzenen arabera banatzen bada be.

92. Giza duintasuna sustatu gura dauan enpresaren ikuspuntutik, zalantza barik, zuzendaritza eraginkorraren ezinbesteko batasuna bermatu behar da; baina horrek ez dau esan gura bere eguneroko laguntzaileak egile isil huts bihurtu behar dituanik, euren esperientzia alperrik galduz eta erabateko pasibotasunera kondentatuz euren lana kontratatzen eta arautzen daben erabagietan.



Gaudium et Spes (GS)

Eleiza gaurko munduan konstituzino pastorala. Vatikanoko II. Kontzilioa

1965

67. Jarduera ekonomikoa, gizon-emakumeen elkarlanaren fruitua izan ohi da gehienetan. Horregatik, bidegabekoa eta ankerra da edozein langileren kalterako izateko eran antolatzea eta arautzea. Oso maiz gertatzen da, baita gure egunotan ere, lanen bat egiten dutenak beren lanaren beraren morroi bihurtzea. Hau ezin daiteke zuritu sekula ere lege ekonomikoak aipatuz. Produktio-lanaren prozesu osoa pertsonaren beharretara eta haren bizitzeko moduetara egokitu behar da; lehenik haren etxeko bizitzara, batez ere familietako amei dagokienez, sexua eta adina beti kontuan izanik. Eman bekie langileei laneko ekintzan bertan beren dohainak eta beren nortasuna garatzeko aukera. Zeregin horretan beren denbora eta indarrak, behar den arduraz, ematen dituztenez gero, nahikoa atsedean eta aisialdi izan behar dute, etxeko bizitza, kultura-bizitza, gizar-tekoa eta erlijio-koa lantzeko. Are gehiago, beren ogibideko lanean agian gutxi landu dituzten ahalmenak libreki lantzeko aukera izan behar dute.

Centesimus Annus (CA)

Entziklika 'Rerum Novarum' dalakoaren mendeurrenean. Juan Pablo II.a

1991

35. Enpresaren helburua ez da, beste barik, mozkinak ateratea, enpresa bera, era batera eta bestera, bere funtsezko beharrianak asetzea bilatzen daben eta gizarte osoaren esanetara dagoan talde jakin bat osatzen daben gizakien alkarte lez eratzea baino. **Mozkinak** enpresa-bizitzaren elementu erregulatzaila dira, baina ez bakarrik; eurakaz batera, kontuan hartu behar dira beste faktore gizatiar eta moral batzuk, epe luzera, enpresaren bizitzarako hareek besteko funtsezkoak dira-eta.



Caritas in Veritate (CV)

Osoko giza garapena karidadean eta egian entziklika. *Benedicto XVI.a*

2009

36. Jarduera ekonomikoak ezin ditu gizarte arazo guztiak konpondu, beste barik, **merkatuaren logika** zabalduz. Guztion ongizatea lortzeari begira antolatuko da, horixe da-eta, batez be alkarte politikoren erantzukizuna. Beraz, kontuan izan behar dogu helburu nagusitzat aberastasuna eragitea baino izango ez leuken gestino ekonomikoa eta birbanaketaren bidez zuzentasuna lortzeko jardun beharko leuken ekintza politikoa banantzeak **desoreka larriak** dakartzala. Eleizearen ustetan, jarduera ekonomikoa ez da gizartearen kontrakotzat hartu behar. Horregaitik, merkatua ez da -eta ezin dau bihurtu- indartsuenak makalena zapaltzeko abagunetzat hartzen dauan esparru.

67. Munduko ekonomia gobernatzeko, krisiaren ondorenak jasan dabezan ekonomiak onbidetatzeko, okerrera egitea eta, ondorioz, desoreka handiagoak prebenitzeko, bidezko desarme integrala, elikagai-segurtasuna eta bakea lortzeko, ingurumenaren zaintza bermatzeko eta migrazino-korronteak arautzeko, preminazkoa da benetako **Munduko aginpide politikoaren** presentzia, Joan XXIII.a nire aurreko Aita Santu Dohatsuak azaldu eban lez. Aginpide hau zuzenbidez araututa egongo da, zehatz-mehatz subsidiarotasun eta alkartasun printzipioei lotuko jake, guztion ongizatea lortzeari begira antolatuko da, egian oinarritutako karidadearen balioetan inspiratutako benetako giza garapen integralaren gauzatzean konprometituko da. Aginpide hori, gainera, danek autortu beharko dabe eta eraginkorra izango da herritar baxkoxari segurtasuna, justiziaren betetea eta eskubideen errespetua bermatzeari jagokonez.



Ekonomia gizakiaren esanetara.

Iruña eta Tuter, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Gotzainen pastoral idazkia. Garizuma-Pazkoa.

2011

18. Krisiak erakutsi digunez, merkatuak, **bere kabuz bakarrik**, eraginkortasunik ez izateaz gainera, jarduera ezmorakak susta ditzake eta hondamendi orokorra eragin. Kontua ez da merkatuaren alderdi mesedegarri eta beharrezkoak ukatzea; hala ere, ez da egia merkatuak erabateko askatasunez, inolako interferentziarik gabe jardutea denik biderik egokiena guztion ongizatea jadesteko. Inoiz ez da existitu, ezta existituko ere, merkatu hain libre eta perfekturik, hain zuzen ere beren makaltasun eta interesen menpe dauden pertsona eta taldeak burutzen dituztelako merkatuko jarduerak. Honegatik bakarrik bada ere, guztion ongizatearen aurkako jarduera kaltegarri oro galarazi behar duten botere publikoek bermatu behar dute merkatuko joko zuzena.

Evangelii Gaudium (EG)

Ebanjelioaren iragarpena gaurko munduan burubide apostolikoa. Frantzisko.

2013

55. Bizi dogun krisi finantzario honek, jatorrian, krisi antropologiko sakona dagoala ahaztarazoten deusku: gizakiaren nagusitasuna ukatzea! Idolo barriak sortu doguz. Antxinako urrezko zekorraren gurtzak (ik. Ur 32, 1-35) badau bersino barria eta bihozbakoa gure egunotan: diruaren fetitxismoa eta **arpegi bako** eta gizalegezko helburu bako **ekonomiaren** diktadura. Finantzetan eta ekonomian eragina dauan munduko krisialdiak haren desorekak agertzera emoten ditu baina, batez be, gizakia bere beharrianen artean baxkarrera, **kontsumora**, bihurtzen dauan gabezia larria erakusten dau orientazino antropologikoari jagokonez.



OTOITZ EGITEKO

Jaungoikoaren egitasmoek ez dabe zalantzarik eragiten: azkenez arduratu, aberastasuna banatu, gizakiari lehentasuna emon.

(Ur 22, 24-26)

Zuekin bizi dan nire herriko dohakaberen bati dirua maileguz emoten badeutsazue, ez izan zeken beragaz, ez ezarri interesik. Soingainekoa hartzen badeutsazue bahituran, itzuli eguzkia sartzerako, ez dau-eta hori beste estalkirik. Zeregaz babestuko da, bestela etzaterakoan? Laguntza eske deadar egitean, entzun egingo deusat, errukiorra naz-eta.

(Dt 14, 28-29)

Hiru urtez behin, urteko uztaren emaitzen hamarena bereiztu eta uriko biltegian gordeko dozue; holan, ondareztat zuek lez lursailik hartu ez dauan lebitarrak eta zuekaz bizi diran etorkin, umezurtz eta alargunek zer jana izango dabe.


Legeak eta erakundeak gizakien zerbitzura dagoz. Baita enpresa be.

(Markos, 2, 23-28)

Behin batean, larunbatez, gari-solo batean zehar joian Jesus. Eta ikasleak, bide batez, galburuak hartzen hasi ziran. Fariseuek esan eutsen Jesusi: «Zelan dihardue egiten, zapatuz, zilegi ez dana?» Harek erantzun: «Ez al dozue inoiz irakurri zer egin eban Dabidek beharaldi batean, bera eta bere lagunak goseak aurkitu ziranean? Zelan, Abiatar abade nagusi zala, Jaungoikoaren etxean sartu eta Jaunari eskainitako ogiak jan ebazan, legez abadeek bakarrik jan eikiezanak, eta zelan beragaz egozanei be emon eutsen?» Eta, gainera, esan eutsen: «Zapatua gizakiaren onerako egin eban Jainkoak eta ez gizakia zapatuaren onerako. Beraz, zapatuaren beraren nagusi da Gizonaren Semea.»

KRISIAREN ETA LANGABEZIAREN ZORIONTASUNAK

- Zorionekoak inbertitzera eta lanpostua sortzera ausartzen diranak,
Erreinuaren akzinoak eskuratzen dabezalako.
- Zorionekoak ezinbestekoa ez daben enplegu-aniztasunari uko egiten deutenak,
leku segurua daukielako Erreinuan.
- Zorionekoak euren kontua balitz lez lan egiten daben eta arazoak sakon aztertzen dabezan funtzionario publikoak,
euren lanak santutasunerako bidean jarriko ditualako.
- Zorionekoak euren jarduera profesionalaren erreforma zuzenen aurka ez dagozan profesionalak,
hobe dalako Jaungoikoaren aurrean ondo geratzea, lagunen aurrean baino.
- Zorionekoak euren lan estra edo igoera gehigarrien ginetik danontzako lanpostuak izatea nahiago daben beharginak,
badakielako non dagoan euren irabazia.
- Zorionekoak langabezian egotearen plantak egin eta langabezia-saria jasoz iruzur egiten ez daben langileak,
eurek ez dabelako ahaltsuen berekoikeria zuritzen.
- Zorionekoak, legezkoak izan arren, euren irabaziak gehitzeko egoeraz aprobeztatzen ez diran bankariak, bitartekariak eta merkatariak,
bakearen alde diharduelako.



JAUNA!

*Busti gure bihotzak haserre zuzenaz.
Egin gaizuz zentzuzko eta arduratsu.
Kendu eiguzu hainbesteko zuhurtzia eta bildurra.
Emoiguzu indarra eta ausardia.*

*Garbitu eta irauarazo gure konpromisoak
jarduera sozial eta politikoetan,
duintasuna eta senidetasuna ez daitezana
berba engainagarri eta hutsak izan
behartsu, baztertu eta garaituentzat.*

*Jauna, hona hemen nire eskuak, oinak, ezpanak,
nire lana eta denporea,
nire ilusinoa, nire bizitza...
Nazan eta daukadan guztia.*